

KULTURA GAUZATU ERRUKIAREN ERAGINEZ KRISTAU ARNASA DAUAN UNIBERSIDADEAN

Errukiaren urtea, Jubileua, Urte Santua: horra hor beti preminan, edonoz eta edonon gosez eta egarriz bizi garan gizon-emakumeon argi eta izar bizia, gure makaltasun, ames, asmo eta gurarientzat helduleku sendo eta baketzailea.

Urte Santu honen “Iema” hauxe izan dogu: “Errukitsu Jainko Aita lez” (ik Lk 6,36). Goiburu edo ikurritzak gure arre-ta bizkortzen eta irabazten dau Aitaren ereduaren moldara bizi daigun errukia, eta hauxe eskatzen deusku: ez daigula epaitu eta kondenatu, ezpada ze parkatu daigula eta neurri barik eskeini daigula maitasuna eta parkamena.

“Logoa” –Markos I. Rupnik aita jesuitak egina– errukiaren gai sakonaren laburpen eraginkor modura aurkezten jaku. Izan bere, hauxe erakusten deusku (Aulki Santuko *web* orrian irakurri geinkenez): “Semeak sorbalda ganean hartzen dau gizon galdua, antzinako Eleizeak maite-maite eban irudia berreskuratuz, ze horrexek adierazten dau Kristoren maitasuna, berrerospenagaz bere gizakundearen misterioa bere osotasun betera eroaten dauan maitasun neurribakoa. Marrazkiaren egiturak agertuazoten dau Artzain Onak gizonaren haragia ikutu eta inguratzen dauala, besoetan hartuz beragaz osorik bat egini, eta hataginoko maitasunaz ze bizia aldatu eragiten deutsala. Bada, gainera, berezitasun deigarri bat, ezelan bere ihes egin ezin deuskuna: Artzain Onak, sekulako errukiaz bizkarretzen dau gizona (gizadia), baina bere begiak gizonarenakaz nahastatzen dira. Kristok Adamen begiagaz ikusten dau eta Adamek Kristoren begiagaz. Horretara, edozein gizonek

(-emakumek) aurkitzen dau Kristogan, Adam barriagan, bere gizatasuna eta itxaroten deusan geroa, Haren begiradan Aitaren maitasuna begiztatuz”.

Aldi egoki hau, sasoi (*kairós*) hau sakon bizitzeko konbidapena egiten jaku, guk geure haragiaren haragi egiteko errukizko ekintzak, bai “gorputzezkoak” eta bai “espirituzkoak”, eta horretara testigantza emoteko eta, berariazko eran, “kultura gauzatzeko errukiaren eraginez”.

Errukiaren eragin pean eta errukia arnas dauan kultura gauzatzeko eta garatzeko sekulako eredia dogu Artzain Onarengan, beraren moduan beheratuz eta makurtuz, eta batak besteagazko arreta eta ardura samur leporatuz. Irakaskuntza erakundeetan, unibersidadean... bada *karidadearen* goimailako moldea, *karidade intelektuala*. G. B. Montinik, gero Paulo VI.a Aita Santua izango zanak unibersidadeko ikasle gazteei idazten eutsenez: “Jakintza eta zientzia ere karidade izan daiteke [...]; idazlumaren eta pentsamentuaren bidez egia zabalitzen dauan edonork karidadeari eskeintzen deutso zerbitzua”. Eta gure egunotan idazlumaz gain, baditugu tresna barriak eta baita “inguru” barriak ere.

Jakitun askoren ustez hezkuntza bene-benetako larrialdi eta emergentzian aurkitzen da: mundu digitalizatuak eta gero eta gehiago teknikak inbadituak, perspektiba eta ikusmolde barri eta disezaganak zabaltzen ditu, ez bakarrik ikerkuntza arloan, ezpada ze baita aplikazioetan bere, horretara eguneroko ohiturak eurak bere aldatzeraino.

Kulturak askatu egin gura dau edozein tradizionotik eta beronek bideratzen dituan baloreetatik, zahar, atzeratu eta gainditutzat ikusiz eta emonez. Urbanizazioak modu barriz diseinatzen ditu giza bizitzaren erritmoak eta guneak, ingurune eta gizarte loturen modu nagusiak eraldatuz. Krisi orokorrak jokatuko aro luzean, pobrezia gero eta zabalagoak giza miseria eta

duintasun galera eragiten daben modeloak biztu eta susper-
tzea dakar. Zelan aurre egin erronka latz horreei?

Erronka handi eta zabal horreen aurrean, beharrezkoa da pentsamentuaren ekarpen egokia eskeintzea eta kultur eta gizarte proiektu zehatza gauzatzea, horretara gizakiagazko eta munduagazko begirada bere egian eta osotasun betean agertzeko; begirada hori kristau errebelazinoak argitua izango da, Jesus berberaren misterioaren argitan, horrengandik aurkitzen daualako egiazko argia pertsonaren misterioak; izan bere, bere izatea garatzera deitua da pertsona Jainkoagazko eta lagun hurkoagazko hartu-emonean, eta bere burua maitasunez emotera Jainko-Hirutasunaren ereduaren arabera. Hauxe bihurtu daiteke, hatan bere, pentsamentu barriaren eta bizimolde barrien forja eta sorleku, erantzun konstruktiboa, eta ezelan bere ez etsikorra, emoteko gaur holan deitua dan “pos-humanoak” eta zientzi- eta teknologi-aurrerakuntzak jartzen deuskuzan egundoko erronkei.

Beti da beharrezkoa, eta holakoetan gehiago, gogoeta sakona egin eta ibilbide pedagogiko eta pastoralak prestatzea “humanismo barria” bideratzeko, ezinbesteko lehentasunak kontuan izanda: hartu-emonia, pertsonaren identitatea garatzeko kontzientziaren eta sakontasunaren funtsezko eginkizuna berreskuratzearena, kulturagazko ardurarena, lanari, ertigintzari, birtutearen hazkundeari arreta prestatzearena.

Izan bere, unibersidadea da harrerarako eta sakontzerako berebiziko gunea giza familiak dituan itaun eta arazoei erantzuna bilatzeko, bera da persona, sentsibilidade, jakintza eta kulturek bat egiten daben lekua edozein eratako gaietan alde-raketa konstruktibo eta aberasgarria gauzatzeko. Alkarrizketarako, guztien onaren bilaketarako bide edegia da, hurkoei eta urrunekoei zuzentzen jaken errealidade aberasgarria. Eta sentidu horretan “humanismo barriaren” “barria” lantzeak esan gura dau egunero sortzen eta zabaltzen diran itaun barrien

eztabaidetatik kanpo ez geratzea, euren erronkak arduraz onartzea, gaurko arazo, problematika eta gizarte eskakizunen aurrean zuhur eta argi jokatzeko, irakurketa sakon eta disziplinar-tekoak eskeintzeko, eta erantzun zehatz eta gauzagarri edo bideragarriak aurkezteko.

Gure sasoia ez da distrakzino eta ardurabakokeriarako aldia, guztiz kontrakoa baino, hau da, zuhur eta izarrik irautekoa da, eta oinarritzakoa eta funtsezkoa danari samur begiratze-ko gaitasuna gudan biztu eta bizkortzekoa. Badogu zeregina!

Lontzo Zugazaga